

## AGINTARIAK ETA LANGILEAK

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 4468

*1885/2025 EBAZPENA, irailaren 29koa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez María Belén Beltrán de Heredia Pérez de Villarreal andrea aldi baterako eta lau urte luzagarriz izendatzen baita Anestesiologia eta Bizkorketa Zerbitzuko Atal Sanitarioko buru (Minaren Unitatea), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan.*

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen martxoaren 3ko 394/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi bat argitaratu zen Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Anestesiologia eta Bizkorketa Zerbitzuko Atal Sanitarioko buruaren (Minaren Unitatea) lanpostua hornitzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko martxoaren 14ko EHAA, 51. zk., eta 2025eko martxoaren 22ko BOE, 70. zk.).

Epaimahai kalifikatzaileak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, María Belén Beltrán de Heredia Pérez de Villarreal andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori Anestesiologia eta Bizkorketa Zerbitzuko Atal Sanitarioko buru (Minaren Unitatea) izendatzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan xedatutakoarekin,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– María Belén Beltrán de Heredia Pérez de Villarreal andrea Anestesiologia eta Bizkorketa Zerbitzuko Atal Sanitarioko buru (Minaren Unitatea) izendatzea, aldi baterako, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoaren arabera, eta egun honetatik aurrera izango ditu ondorioak: 2025eko urriaren 1a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du lanpostua, baldin eta jazotzen ez bada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldeztu aurretik kontrako espedientea baldin badago eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

2025eko urriaren 23a, osteguna

Bosgarrena.– Interesdunari eta Arabako Erakunde Sanitario Integratuari ebazpen honen berri ematea.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 29a.

Arabako ESiko zuzendari-gerentea,  
ENRIQUE MANUEL BÁREZ HERNÁNDEZ.